



# IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA

**Ikastetxearen izena:**

ELATZETA

---

**Ikastetxearen kodea:**

012102

**Data:**

2023(e)ko ekainaren 8(a)

---





# 1. SARRERA

## **Ikastetxearen testuingurua**

Kokapena, mailak, ikasleria, klaustroa, familien maila sozioekonomikoa eta baliabide teknologikoak, ikastetxearen ikuspegia eta baloreak...

Elatzeta eskola Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza dituen zentroa da eta Irungo Landetxa auzoan dago kokatua, Araba Kalea, 44, 20305 Irun, Gipuzkoa. Elatzetak Katea-Landetxako eta Irungo jarduera desberdinetan parte hartzaile aktiboak izateko bokazioa du. Katea-Landetxan kokatuta gaude eta auzoko ekimenetan parte hartzen dugu. Hala ere, azken urteetan Irungo ikasle asko jasotzen dugu, gure ikasleen herena batz bestea eta Irungo bizitza kultural eta sozialean ere eragile aktiboak izan nahi dugu.

Elatzeta Ikastetxeak bi eraikin ditu: Haur hezkuntzako eta Lehen hezkuntzako. Bakoitzak bere jangela dauka eta honetaz gain, baratza eta oilategiaz, hiru jolastoki zabalez eta kirolguneaz ere disfrutatzeko aukera dugu. Bi lerro dituen eskola da, 2 urteko geletatik 6. maila bitartera: Haur Hezkuntzan 148 ikasle daude eta Lehen Hezkuntzan 279. Irakasleriari dagokionez hezitzaile 5, espezialista 5, tutore HH 9 eta LH 12, errefortzuko irakasleak 5, AKA 1, eta zuzendaritza taldeak 3 osatzen dute. Guztira 40 kide dira.

Familien maila sozioekonomikoa ertaina da. Nahiko euskalduna da eskola eta maila sozioekonomikoak euskararekin egun duen erlazioa azpimarratu nahi da. Hala ere Euskararen presentzia murrizta da bai maila sozioekonomiko baxuko sektoreetan, baina baita maila altuenekoetan ere.

Baliabide teknologikoen aldetik Elatzetaren egoera ona da. Ikasgela guztiek ordenagailuak eta pantaila digitalak dituzte eta LHko azken zikloko ikasleek ere badituzte beraien ordenagailuak. Wifi sarea hobetu daiteke baina ez dago gaizki. Informatika gela bat ere bada txandaka ikasmila guztiek erabiltzen dutena.

Elatzeta honako xedea duen ikastetxe publikoa da:

- Pertsona autonomoak, gai direnak, kritikoak eta euskaldunak/eleanitzak hezteko, beren aukeretatik abiatuta garapen integrala lor dezaten jendartean integratzeko eta azaltzeko.
- Desberdintasunak errespetatuko dituen aukera berdintasunean hezteko, bereizkeria baztertuz eta pertsonen garapen integrala sustatuz, beren gaitasunak eta emozioak ahal bezain beste garatuz.
- Hezkuntza komunitatearen inplikazioa eta lankidetzaren lan metodologia gisa bultzatzea bere testuingurura irekia den ikastetxea lortzeko.
- Jendartearen garapenak dakartzen aldaketek jakitun den kalitatezko hezkuntza emateko irakasleriaren etengabeko formakuntza ahalbidetzea.

Gure ikastetxeko lana eta bizikidetzaren balore hauen arabera izango da:

- Inklusioa. Pertsona guztiak onartzen dituen ikastetxea da IES Sarriguren BHI edozein delarik ere hauen izaera, aukera berdintasuna eta beharrezko laguntza espezifikoa bermatuko duena.
- Lankidetzaren. Elkarlanean diharduen ikastetxea, talde-lana lan metodologia gisa duena, eta horrela, taldean elkarlaginez, autonomiaren eta ekimen pertsonalaren garapena lagundu.
- Partaidetza. Ikastetxe anitza, pertsona guztiei harrera egingo diena. Hezkuntza komunitatearen kideen arteko elkarlana bultzatu eta testuinguruan eta jendartean inplikatuko dena.
- Baterako hezkuntza. Ikastetxeak berdinen arteko harremanak bultzatuko ditu eta edozein bereizkeria mota edota genero indarkeria baztertuko ditu.
- Normalizazioa eta eleaniztasuna. Ikastetxeak euskararen normalizazioa lagunduko du berezko hizkuntza gisa eta ikasle eleanitzen aldeko apustua egingo du.
- Herritartasuna. Herritartasun kritiko eta arduratsu baterako prestatuko ditu ikastetxeak, testuinguru sozial eta kulturalarekin integratua eta konprometitua.

## **Azpiegiturak**

Ikastetxearen hornikuntza teknologikoa, konektibitatea, plataformak, zerbitzu digitalak eta mantenua...

Eskolak hornikuntza teknologikoa nahiko ona du. Gela guztietan dago pantaila digitala HH4tik LH6 maila bitarte eta irakasleak bere ordenagailu propioa du. Informatika gela ere badago LHko eraikinean.

Konektibitatearekin ere noizbehinka arazoak ditugu baina orokorrean nahiko ongi dabil.

IKT koordinatzaile bat dago web orriaren hornikuntza, ikasle zein familien helbideak, ikastetxeko ordenagailuetako sarbideak, drive.a eta Digitalizazio batzordea eramaten duena.

Mantenuari dagokionez, matxuren kudeaketa eramaten duen arduradun bat dago eta hezkuntzak eskeintzen duen zerbiatzuarekin egiten dugu lan; haienak dira eta guk ditugun gailuak. Matxuratuta dauden gailuen zerrenda pasatzen da eta nahiko azkar konpontzen dituzte.

Honetaz gain, aurten Digitalizazio batzordea eratu da digitalizazio plana eta ikastetxeko digitalizazio proiektua (IDP) sortzeko asmoz. Teknologia berrien inguruan Ikastetxeak izango duen diskurtsoa sortu eta arlo honi dagozkion zehaztapen guztiak markatzen joateko lan egingo du batzorde honek.

### **Proiektuaren justifikazioa**

Proiektuak nola lagunduko dio ikastetxeari eta zergatik parte hartzen da.

Hezkuntzak horrela agindu duelako hartzen da parte. Honi zentzua emateko ikastetxe mailan gaia eztabaidatu, norantza adostu, ardurak banatu eta lanak koordinatzen saiatzen ari gara.

Honetaz gain, egia da gizartea geroz eta digitalagoa dela, eta eskola gizartera egokitu behar denez ikasleak gizartean parte hartzeko ahaldundu behar ditula. Beraz irakasle zein ikasleak konpetentzia digitala garatzeko lanean ari gara.

LOMLOE izango da ikasleen irteera profila definitu eta horretara iristeko lortu beharreko konpetentziak zehazten dituen. Lege honetan oinarrituz, helburu batzuk zehaztu dira Elatzeta eskolan eta IPDn islatuko ditugu. Bertan eskolaren hasierako egoera digitala, landu beharreko konpetentzia digitalaren gaitasunak eta digitalki iritsi nahi dugun maila definitzen ditugu.

Guzti honen bitartez, Elatzeta eskola publikoak konpetentzia digitalaren zein teknologiaren (orokorrean) aurrean, zertarako, zer, noraino eta nola garatuko duen zehaztu eta definitzen joango gara; Kontzientziaz eta arduraz jokatzeko hain gai garrantzitsu hau.

### **Elaborazio prozesua eta lan-taldea**

Lehetasunak zehaztu.

Planifikazio maila zehaztu.

Nor izango da eragilea?

IDPa aurrera eramateko digitalizazio batzordea sortu du eskolak eta hau izango da eragilea. Batzordeak egindako bileretan zehazten eta adosten dira lehetasunak, planifikazioa eta denboralizazioa zein diren. Tarteka mentorearekin egindako lana eguneratzen dugu eta zuzendaritza taldearekin ere koordinatzen gara.

### **Proiektu Digitalak Hezkuntza Proiektuari eta Urteko Planari egiten dion ekarpena**

IPDK alderdi teknologikoari dagokion ekarpena egingen dio urteko plana zein hezkuntza proiektuari. Honen bitartez, Elatzeta eskola publikoak konpetentzia digitalaren zein teknologiaren (orokorrean) aurrean, zertarako, zer, noraino eta nola garatuko duen zehaztu eta definituko dugu.





## 2. IKASTETXEAREN EGOERAREN ANALISIA

**Errealitatearen azterketa, prozesuetan IKTen erabileraren gaineko hausnarketa.**

SELFIE edo beste autoebaluazio tresna batetik jasotako emaitzen hausnarketa.

Emaitza anitzak dira, HH zein LHko erantzunak batera daude eta emaitzak ondorioztatzeko pixka bat nahasgarria da.

Orokorrean espero genituen emaitzak jaso direla hausnartzen dugu.

Bajuena ebaluazioa da eta altuena aldiz, ikasleen kompetentzia.

Zuzendaritza eta irakasleen arteko emaitzak antzekoak dira eta ikasleen emaitzak aldiz, altuagoak dira. Hau ikasle bakoitzaren ikuspuntu/errealitateari dagokion irakurketaregatik dela uste dugu. Gehienetan gu baino baikorragoak izaten dira. Eta egia da ikasleen erantzunek arreta deitu digutela onera.

Pedagogian eta ikasleen kompetentzian dago alde handiena erantzunen artean.

## AMIA analisia

Indarguneak, ahultasunak, aukerak eta mehatxuak.

### Faktore negatiboak

#### Ahuleziak (barne-faktoreak)

A1 Estrategia digitala

A2 Estrategia irakasleekin garatzea

A3 Irakaskuntzako modalitate berriak

G1 Gaitasunen ebaluazioa

G3 Atzeraelikadura egokia

G5 Nork bere ikaskuntzari buruzko hausnarketa egitea

#### Mehatxuak (kanpo-faktoreak)

D1 EPP beharrak

D2 EPP-n parte hartzea

D3 Bizipenak partekatzea

### Faktore positiboak

#### Indarguneak (barne-faktoreak)

E1 Hezkuntzako online baliabideak

E2 Baliabide digitalak sortzea

E3 Ikaskuntzarako ingurune birtualak erabiltzea

E4 Hezkuntza-komunitatearekin komunikatzea

#### Aukerak (kanpo-faktoreak)

C1 Azpiegitura

C2 Irakaskuntzarako gailu digitalak

C3 Interneterako sarbidea

C5 Laguntza teknikoa

C7 Datuen babesa

C8 Ikaskuntzarako gailu digitalak

### Autoebaluazioaren ondorioak

Hausnarketa eta **AMIA** tresnatik ateratako ondorioak.

### Indarguneak optimizatu aukerak areagotzeko

Pedagogia ona eginez, azpiegiturak mantenduko ditugu.

### Ahuleziei aurre egin aukerak aprobetxatzeko

Azpiegiturekin ezin diogu ebaluazio zein lidergoari aurre egin. Denbora, formakuntza eta antolaketa bertikal koherente bat da behar duguna.

### Indarguneak optimizatu mehatxuak indargabetzeko

Pedagogia ezin dugu erabili formakuntza gure artean egiteko. Kanpoko adituak behar ditugu gu formatzeko eta hortarako denbora tarteak izan lehenik.

### Ahuleziei eta mehatxuei aurre egin

Ebaluazioa, lidergoa eta formakuntzei guk ditugun baliabide eta denborarekin ezin diegu aurre egin.



### 3. HELBURUAK ETA EKINTZAK

#### LG Lidergoa eta gobernantza

##### Helburua

Ikastetxearen proiektu digitala ikasturtero berritzea, lehendik dagoen materiala modernizatzea eta aukera berriak eskaintzea.

##### Deskriptorea

LG 2.5 Helburu bikoitzak daude: lehendik dagoen hezkuntza- hornidura modernizatzea eta aukera berriak eskaintzea

##### Epea

2024/06/14

##### Adierazlea

LG 2.5 A1 Ikastetxeak ebaluazio-tresnak ditu, kanpokoak eta barnekoak, teknologia digitalen erabilerar

##### Mota

Bai/Ez

##### Helmuga

BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Lehendik dagoen materiala bildu eta aztertu.	Drive	Digitalizazio batzordea	2023/10/06	Detektatua
Bildutakoa eraldatu eta oraingo egoerara egokitu.	Drive	Digitalizazio batzordea	2023/12/01	Detektatua
Teknologia berrien inguruko erabilerari buruzko estrategiak definitu eta lankideei eskaini.	Drive	Digitalizazio batzordea eta Zuzendaritza	2024/06/14	Detektatua



## II Irakaskuntza eta ikaskuntza

### Helburua

Digitalizazio batzordeak segurtasuna, arriskua eta portaera arduratsua lantzea, hau aurrera eramateko informazioa helaraztea eta honen gestioa lideratzea.

Deskriptorea	Epea	
II 1.2 Lehenengo mailan jartzen dira online inguruneetako segurtasuna, arriskuak eta portaera arduratsua	2024/06/14	
Adierazlea	Mota	Helmuga
II 1.2 A2 Lan-talde bat sortu du eta beharrezkoak diren saioak definitu ditu datuen babesari, identitate	Bai/Ez	BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Digitalizazio batzordean gaia azpimarratu eta honen inguruko lan ildo bat sortu	Drive	Digitalizazio batzordea eta zuzendaritza	2023/10/06	Detektatua
Informazioa moodle ikastarotik bildu	Moodle.eko ikastaroa	Digitalizazio batzordea eta zuzendaritza	2024/06/14	Detektatua
Irasleei ikasleek lantzeko material egokitua sortu	Drive + Canva	Digitalizazio batzordea	2024/06/14	Detektatua
Informazioa helarazteko bideak martxan jarri	Emaila + Drive	Digitalizazio batzordea	2024/06/14	Detektatua

## GP Garapen profesionala

### Helburua

Irakasleak digitalizazioarekin zerikusia duten GP ikastaroak egitera animatzea.

### Deskriptorea

GP 1.5 EGP egiaztatu/ziurtatuak lortzeko aukerak sustatzen dira

### Epea

2024/06/14

### Adierazlea

GP 1.5 A1 Irakasleei Prestgara, INTEF eta beste erakundetako ikastaroak egitera animatzen zaie.

### Mota

Bai/Ez

### Helmuga

BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Ikastaroen informazioa zabaldu eta parte hartzerantz animatu.	Emaila	Bea	2024/06/14	Detektatua
"Teknoklik" bezelako formakuntza saioak ikastetxera ekartzera proposatu.	Emaila zuzendaritzari	Udala + Zuzendaritza + Bea	2024/06/14	Detektatua

## EJ Ebaluazio jardunbideak

### Helburua

Ebaluazio formatiboa sustatzea; web.eko blogera igoko diren material digitalak errubriken bitartez ebaluatzea.

Deskriptorea	Epea	
EJ 1.1 Ebaluazio formatiboaren helmena hedatzen da	2024/06/14	
Adierazlea	Mota	Helmuga
EJ 1.1 A1 Ikasgaien % ... tan errubrikak erabiltzen dira irakasteko eta ikasteko prozesuetan, ikasleek bei	Bai/Ez	BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Produktu digitalen portfolioa sortu web. eko blogean	Bloga	Blogeko arduradunak	2024/06/14	Detektatua
Errubrikak sortu eta ebaluatzeko erabili	Errubrikak	Irakasleak + ikasleak	2024/06/14	Detektatua

## EC Edukiak eta curriculuma

### Helburua

**Ikastetxeko unitate didaktikoak berritzea ikaskuntza egiazko testuinguruetan sustatzeko; ikas-egoeretan oinarrituta eta dekretu berria jarraituz.**

Deskriptorea	Epea	
EC 2.4 Ikaskuntza egiazko testuinguruetan sustatzen da	2024/06/14	
Adierazlea	Mota	Helmuga
EC 2.4 A2 Ikastetxearen curriculum-proiektuan, arlo edo ikasgai desberdinak garatzean, gaitasun digita	Bai/Ez	BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Ikasmaila bikoitietan gutxienez ikas-egoera bana sortu gaitasun digitala kontuan hartuz.	Drive + Ikas egoerak	Irakasleoa	2024/06/14	Detektatua

## EN Elkarlana eta networking-a

### Helburua

Ikastetxeko teknologia digitalen erabilerari buruz hausnarketa kolektiboa egitea galdetegi baten bitartez.

Deskriptorea	Epea	
EN 1.5 Barne-lankidetzak eta ezagutzak trukatzeko espero da	2024/06/14	
Adierazlea	Mota	Helmuga
EN 1.5 A1 Ikastetxean teknologia digitalen erabilerari buruzko informazioa eta hausnarketa trukatzeko	Bai/Ez	BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Galdetegiak sortu	Google galdetegiak	Digitalizazio batzordea	2023/10/06	Detektatua
Galdetegi burutu	Emaila	Digitalizazio batzordea	2023/10/06	Detektatua
Galdetegiaren emaitzak aztertu	Drive	Digitalizazio batzordea	2023/10/06	Detektatua
IPDan emaitzak islatu.	Drive + IPD	Digitalizazio batzordea	2024/06/14	Detektatua

## AZ Azpiegiturak

### Helburua

Ikastetxeko ingurune birtuala (weborria) berritu eta komunikazio bide digitalen (emailak eta difusio taldea) erabilera sustatzea.

### Deskriptorea

AZ 1.2 Ikaskuntza-ingurune birtualak optimizatzen dira.

Epea

2024/06/14

### Adierazlea

Mota

Helmuga

AZ 1.2 A2 Zentroak jarduera-protokolo bat du, eta, bertan, lineako ikaskuntza-ingurunea eskaintzeko b

Bai/Ez

BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Ikastetxeko web orria berritzea.	Editor X plataforma + Hezkuntzaren web zaharra	IKT koordinatzailea + Kanpoko langile bat	2023/10/06	Detektatua
Gurasoekin komunikazioa hobetu familia bakoitzari ikastetxeko emaila sortuz.	Emaila	IKT koordinatzailea	2023/10/06	Detektatua
Komunikazio bideak hobetu difusio taldea sortuz.	Watsapp	Zuzendaritza	2023/10/06	Detektatua

## IB Ikastetxeko berariazkoak

### Helburua

**Ikastetxeko diskurtsoa eta dekalogoak sortzea, teknologiaren inguruan ikastetxeko zein ikas komunitateko partaideak norabide berean lan egiteko.**


### Deskriptorea

IB 1.1 Ikastetxeko teknologiaren inguruko lan ildoak zehazten da.

### Epea

2024/06/14

### Adierazlea

IB 1.1 A1 Batzorde digitaletik galdetegi baten bitartez irakaslearen iritziak jasotzen dira, diskurtsoa 


### Mota

Bai/Ez

### Helmuga

BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Ikastetxeak teknologia berrien inguruko diskurtso bat osatu.	Drive	Digitalizazio batzordea + Zuzendaritza	2023/10/06	Detektatua
Dekalogo bat zehaztu honen inguruko arloak jasoaz.	Drive	Digitalizazio batzordea + Zuzendaritza	2023/10/06	Detektatua



## 4. PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

	Helburua	Noiz ebaluatu	Nola ebaluatu	Nork ebaluatu	Betetze maila	Hobetzeko proposamenak
LG	Ikastetxearen proiektu digitala ikasturterero berritzea, lehendik dagoen materiala modernizatzea eta aukera berriak eskaintzea.	IKASTURTERO	Aukera berriak zein lehendik zegoen materiala egokitu den edo ez ikusiz.	Digitalizazio batzordeak eta Zuzendaritzak		
II	Digitalizazio batzordeak segurtasuna, arriskua eta portaera arduratsua lantzea, hau aurrera eramateko informazioa helaraztea eta honen gestioa lideratzea.	IKASTURTERO	Egindako ekintzak egin diren edo ez ikusita.	Digitalizazio batzordeak		
GP	Irakasleak digitalizazioarekin zerikusia duten GP ikastaroak egitera animatzea.	IKASTURTERO	Egindako ekintzak (emailak ...) egin diren edo ez ikusita.	Digitalizazio batzordeak		
EJ	Ebaluazio formatiboa sustatzea; web.eko blogera igoko diren material digitalak errubriken bitartez ebaluatzea.	IKASTURTERO	Ikastetxeko ebaluazio txantiloiak aldatu diren edo ez ikusita.	Digitalizazio batzordeak eta Zuzendaritzak		
EC	Ikastetxeko unitate didaktikoak berritzea ikaskuntza egiazko testuinguruetan sustatzeko; ikas-egoeretan oinarrituta eta dekretu berria jarraituz.	IKASTURTERO	Ikas- egoerak sortu diren edo ez ikusita.	Digitalizazio batzordeak		
EN	Ikastetxeko teknologia digitalen erabilerrari buruz hausmarketa kolektiboa egitea galdetegi baten bitartez.	IKASTURTERO	Galdetegia egin den edo ez ikusita.	Digitalizazio batzordeak		
AZ	Ikastetxeko ingurune birtuala (weborria) berritu eta komunikazio bide digitalen (emailak eta difusio taldea) erabilera sustatzea.	IKASTURTERO	Weborria, difusio taldea eta emailak sortu diren edo ez ikusita.	Digitalizazio batzordeak		
IB	Ikastetxeko diskurtsoa eta dekalogoak sortzea, teknologiaren inguruan ikastetxeko zein ikas komunitateko partaideak norabide berean lan egiteko.	IKASTURTERO	Ziklo bileretara, zein pedagogikara eraman eta onespena eskuratuz.	Digitalizazio batzordeak eta Zuzendaritzak		